<table>
<tr><td colspan="2"><u>EZ OHIKO OSOKO BILKURA</u> / <u>PLENO EXTRAORDINARIO</u><br><br><u>2021EKO MARTXOAREN 13A</u> / <u>13 DE MARZO DE 2021</u></td></tr>
<tr><td colspan="2">BERTARATUAK / ASISTENTES</td></tr>
<tr><td><u>IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL</u><br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna</td><td><u>JARDUNEKO ALKATEA / ALCALDE EN FUNCIONES</u><br><br>D. Alberto Albistegui Zamacola jauna PSE-EE (PSOE).<br><br><u>ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE</u><br><br>D. Jon Iraola Iriondo jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea PSE-EE (PSOE).<br><br><u>ZINEGOTZIAK / CONCEJALES</u><br><br>Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña. María Isabel Larrauri Arriaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Alberto de la Hoz Gorriti jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Mercedes Garate Larrañaga andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Elena Ibañez Anuncibay andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Jon Pérez Illana jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Amaia Albizu Llubia andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (EH BILDU).<br>Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (EH BILDU).<br>Dña. Miren Baranguan Yarza andrea (EH BILDU).<br>D. José Ángel Gimare Escolar jauna (EH BILDU).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (EH BILDU).<br>Dña. Mª Isabel Fernández Pejenaute andrea (ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / EZKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK).</td></tr>
</table>

**Akta hau osoko bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:**

**La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:**

https://eibar-plenos.tiivii.com/?p=867&lang=eu

Eibarko udaletxean, 2021eko martxoaren 13an, goizeko hamar eta erdiak izanik, Udalbatza bildu zen bilkura berezian, bideokonferentzia bidez; goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

**Alkate-Udalburu jaunak** bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

**GAI-ZERRENDA**

**Atal bakarra**

**Miguel de los Toyos Nazabal jaunak kargua utzi duenez Alkate edo Alkatesa berria izendatzea.**

BOZKETAREN EMAITZA:

- Jon Iraola Iriondo: 9 boto

- Boto zuriak: 11

- Baliogabeak: 1

https://eibar-plenos.tiivii.com/?p=867&lang=eu

En la Casa Consistorial, a las diez horas treinta minutos del día 13 de marzo de 2021, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, por videoconferencia, y formado por las señoras y señores anteriormente mencionados.

El **Sr. Alcalde-Presidente** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

**ORDEN DEL DÍA**

**Punto único**

**Elección de Alcalde o Alcaldesa ante la renuncia de D. Miguel de los Toyos Nazabal.**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

- D. Jon Iraola Iriondo: 9 votos.
- En blanco: 11 votos.
- Nulos: 1 voto.

**Alkate-udalburu jaunak** ireki egin du udal taldeek hitz egiteko txanda; hurrenkera ordezkaritza txikienetik handienera izango da.

El **Sr. Alcalde-Presidente** abre el turno de intervenciones de los grupos municipales, que lo harán en orden de menor a mayor representación.

Lehenik, **Fernández Pejenaute andreak**, Elkarrekin Eibar-Podemos / Ezker Anitza – IU/ Equo Berdeak taldearen ordezkariak hartu du hitza

En primer lugar, interviene la **Sra. Fernández Pejenaute**, portavoz del grupo municipal Elkarrekin Eibar-Podemos / Ezker Anitza – IU/ Equo Berdeak:

"Alkatea hautatzeko Udal bilkuran, 2019ko ekainaren 15ean, hain urduri nengoen, ezen baliogabeko botoa eman nuen. Eta argitu nahi dut berriz ere baliogabeko botoa eman dudala, baina oraingoan jakitun eta kontziente izan naiz. Miguel de los Toyosek dimisioa eman zuen bilkuran aipatu nuen bezala, uste dugu erabaki hau ez dela egokiena, osasun-krisi ekonomiko eta sozial itzela pasatzen ari baikara eta kosta egingo baitzaigu hortik ateratzea, eta ikusiko dugu, gainera zer ondorio izango duen.

"En el Pleno de elección de Alcalde, de 15 de junio de 2019, estaba tan nerviosa que voté nulo. Y quiero aclarar que de nuevo he votado nulo pero esta vez con conocimiento de causa. Como comenté en el Pleno de dimisión de Miguel de los Toyos creemos que esta decisión no es la más adecuada porque estamos pasando por una crisis sanitaria, económica y social tremenda de la que nos va a costar salir y además ya veremos con qué secuelas.

Egia esan, nik alderdi sozialistaren boto-emaile izango banintz -arraroa liteke-, aurreko alkatearen aldetik pixka bat abandonatuta sentituko nintzateke, izan ere, bere postuan lau urtez egon zedin eman zitzaion botoa.

La verdad es que si yo fuera votante socialista –algo raro-, me sentiría un poco abandonada por el anterior Alcalde, al que había votado para que permaneciera en su puesto los cuatro años.

Joan den asteazkenean Alderdi Sozialistak bilkura honetan jendea egotea iradoki zien oposizioko taldeei; kopuruak ere aipatu ziren: bederatzi lagun PSErentzat, sei PNVrentzat, bost EH Bildurentzat eta bat Elkarrekin Podemosentzat.

El pasado miércoles el Partido Socialista sugirió a los grupos de la oposición que hubiera público en esta sesión; incluso se aportaban números: nueve personas para el PSE, seis para el PNV, cinco para EH Bildu y una para Elakerrekin Podemos.

Oposizioko taldeok —gehiengoa gara, hori ez da ahaztu behar— ez genuen ulertu irizpide-aldaketa hori, zeren eta aurreko Udal Bilkura presentzialean ia borroka egin behar izan zen, parte hartu ohi duten hiru edo lau herritarrek bertan egon zitezen.

Todos los grupos de la oposición –siendo mayoría, no hay que olvidarlo- no entendimos este cambio de criterio, ya que en el anterior Pleno presencial casi hubo que pelear para que las dos o tres personas de la ciudadanía que suelen internvernir pudieran estar presentes.

Alarma-egoeran jarraitzen dugu eta galdetu dugu ea zerk eragin duen irizpide-aldaketa hau eta ez zaigu erantzun, publikoak bilkura honetan ezin duenean parte hartu. Badirudi Alderdi Sozialistari gehiago inporta zaizkiola entzun ditugun txaloak osasun-segurtasuna baino.

Seguimos en estado de alarma y hemos preguntado por qué este cambqué motiva este cambio de criterio y no se nos ha contestado, cuando el público en este Pleno no puede intervenir. Parece que al Partido Socialista le importan más los aplausos que hemos escuchado que la seguridad sanitaria.

Ondo hasi dugu legegintzaldiaren bigarren zati hau alkate berriak bere irizpide minoritarioa inposatuz, “nik neuk balio dudalako”.

Empezamos bien esta segunda parte de la legislatura con Alcalde nuevo, imponiendo su criterio minoritario “porque yo lo valgo”.

Beraz, jokatzeko modu horrekin ados ez nagoenez —ez da lehen aldia eta susmoa dugu hurrengo bi urteetako ohiko modua izango dela—, baliogabeko botoa eman dut.

Por tanto, al no estar de acuerdo con este modo de proceder, que no es la primera vez y nos tememos que será la tónica general en los próximos dos años, he votado nulo.

Eta baliogabeko botoa eman dut, halaber, PNVk aukera galdu duelako PSE-EEz besteko hautagaitza alternatibo bat aurkezteko; berriz ere alferrik galdu da Udal honetan aldaketa bat izateko aukera. Gutxitan egoten da izan duguna bezalako bigarren aukerarik.

Y también he votado nulo porque el PNV ha desperdiciado la oportunidad de presentar una candidatura alternativa al PSE-EE, se ha vuelto a desaproevhar de nuevo la oportunidad de un cambio en este Ayuntamiento. Pocas veces se presenta una segunda oportunidad como la que hemos tenido.

Hemendik aurrera, zorte ona opatzea besterik ez zaigu geratzen, Jon, eta berriz ere adierazi Elkarrekin Podemosen jarraituko dugula bai zuri bai zure taldeari eskua luzatzen, eibartarren bizimodua hobetzen duten neurri sozial guztietarako.

A partir de ahora, sólo nos queda desearte buena suerte, Jon, y reiterarte que desde Elakrrekin Podemos seguiremos tendiéndote la mano a ti y a tu grupo para todas aquellas medidas sociales que mejoren la vida de la ciudadanía eibarresa.

Zorionak."

Felicidades."

Jarraian, **Errasti Bernedo jaunak**, EH Bildu udal taldeko bozeramaleak honako hitz hauek esan ditu:

A continuación, el **Sr. Errasti Bernedo**, portavoz del grupo municipal EH Bildu, pronuncia estas palabras:

"Gaur, legegintzaldi berdinean bigarren aldiz banatu da alkate makila. Aurreko plenoan esan gendun moduan, esperientzia berrixa da guretzat, EH Bildurentzat. Gaurkoan ez dogu hautagaitzarik aurkeztu, 2019ko ekainian egin gendun moduan. Badakigulako ez ditugula babes nahikua jasoko eta errealistak izan gara: aldaketarako beste aukera bat, hirugarrena, galduko dogu. 2015eko ekainian, 2019ko ekainian, eta gaur, zenbakixek aldaketa hori ahalbideratzen zebelako.

"Hoy, se entregará el bastón de alcalde por segunda vez en la misma legislatura. Como dijimos en el pleno anterior, es una experiencia nueva para nosotros y nosotras, para EH Bildu. Hoy no presentamos una candidatura, como hicimos en junio de 2019. Porque sabemos que no contaremos con el apoyo suficiente y somos realistas: perderemos otra oportunidad por tercera vez. Ya que en junio de 2015, en junio de 2019 y hoy, los números hacían posible ese cambio.

Egixa esan*, y sin ningún tipo de acritud, que quede claro*, faltan bota dugu bigarren taldearen gerturatzea, behintzat aurrean dakagunaren diagnostiko bat egiteko, gutxienez egoeraren diagnostiko partekatu bat egiteko, agintaldian aurrerantzean zer dugun jakiteko, nola egingo diogun aurre PSEren hautagaitza berriari, baina gerturatze hori ez da eman. Eta mahai gainean EH Bilduren edo EAJen hautagaitza bat aurkeztera iritsi gabe ere, zeren eta, lastima da, baina badakigu kanpoko hitzarmenak direla-ta eskuak eta oinak lotuta dituzuela, eta egoera honetatik oin-puntetan igaro nahi duzuela.

A decir verdad, y sin ningún tipo de acritud, que quede claro, hemos echado de menos un acercamiento por parte del segundo grupo, al menos para realizar un diagnostico compartido de lo que tenemos por delante en lo que queda de legislatura, de cómo afrontamos la nueva candidatura del PSE o no, pero ese acercamiento no ha existido. Aunque sea sin llegar a poner encima de la mesa la presentación de una candidatura de EH Bildu o del PNV, porque es una pena, pero sabemos que estáis atados de pies y manos por pactos externos y queréis pasar esta situación de puntillas.

Eta aurreko plenoan esan gendun moduan, badakigu legislatura erdiko

Y como dijimos en el pleno anterior, sabemos que estos cambios a mitad de

aldaketa hauek -Arriolana, Miguelena eta gaur, Iraola hautagaiarena- PSEren estrategia politiko baten baitan sartzen dirala. Estrategia politiko hori ondo atera zaizue aurrekoetan, baina ikusiko dugu ea oraingoan hala den, lehen aldiz gutxiengoan gobernatzen duzue-eta.

legislatura -los de Arriola, Miguel, y, ahora el del candidato Iraola- entran dentro de una estrategia política del PSOE. Una estrategia politica que os ha salido bien en las anteriores ocasiones pero, veremos si es así esta vez, la primera vez, recordamos, gobernando en minoría.

Ia esan dezakegu Iraolaren 2023rako alkatetzarako hautagaitza hasi dela dagoeneko. Sare sozialei begirada bat ematea besterik ez dago, nola dauden, sua dariela, Denis Itxaso erara egindako argazkiz beteak, edo eragileekin azken orduan egindako bilera ugariak (mahaiak eramaten ateratako argazkiak ez du parekorik).

Podemos decir casi casi que la campaña de la candidatura de Iraola a la alcaldía de 2023 ya ha comenzado. Solo hace falta echar un vistazo a las redes sociales, cómo echan fuego, llenas de fotos a lo Denis Itxaso, o las numerosas reuniones de última hora con distintos agentes (la foto transportando pupitres es insuperable).

Eta esan doten moduan, minorian gobernatzen dozue. Aliantza ezberdinak behar dozuez hainbat ekimen eta proiektu aurrera eramateko eta horrek malgutasuna eskatuko dau, akordioetara heltzeko kapazidadia. Eta baita, elegantiak izatia eta prentsan medalla guztiak ez eramatia, konpartitzen jakin bihar da, hori dalako oingo errealitatia. Herrixak jaikin deizan zeinekin batera urten diran proiektuak. Eta hori aldatu biharra dakazue.

Y como digo, gobernáis en minoría. Necesitáis diferentes alianzas para sacar adelante iniciativas y proyectos, y ello conlleva flexibilidad, capacidad de llegar a acuerdos. Y también ser elegantes y no llevarse todas las medallas en la prensa; hay que saber compartir, porque esa es la realidad actual, que el pueblo sepa con quién se sacan los proyectos adelante. Y eso tenéis que cambiar.

Isabelek adierazi duen bezala, gutxiengoan gobernatzen duzue eta,

Tal y como ha expresado Isabel, un claro ejemplo de cómo gobernáis en

hala ere, ez duzue jokaera aldatzen; horren adibidea da oposizioko hiru taldeok egin genizuen eskabidea Udalbilkura honetan publikorik ez egoteko; 11 zinegotzi gara 9ren kontra, baina, guztiarekin ere, ez diguzue kasurik egin. Esan bazenute Jon Iraolaren senideak egon behar zirela, oso ondo ulertuko genuen, baina horiek dira aldatu behar dituzuen jarrerak: Udala denona da, denok osatzen dugu eta ez bakarrik PSEk.

minoría, pero no cambiais la actitud, es la petición que hicimos los tres grupos de la oposición para que no hubiese público en este Pleno; somos 11 concejales frente a 9, pero aún así habéis hecho caso omiso. Si llegais a decir que tenía que estar la familia de Jon Iraola lo hubiésemos entendido perfectamente, pero esas actitudes son las que teneis que cambiar: el Ayuntamiento es de todos, lo conformamos todos y no solamente el PSE.

Erronka handixak dakazuz alkate berri moduan aurretik. Batzuk aipatuko ditxut:

- Hiriko dokumentu eta ardatz garrantzitsuenetarikoa dan plan generala berritzen hasita gara, azkenean, Eta plan nagusi horrek, gainera, ezingo du aurrekoan bezala, PSOEren aldeko botoekin bakarrik aurrera egin, baizik eta sentsi- bilitate politiko guztiak hartu beharko ditu bere baitan haren onarpena bermatzeko, eta garrantzitsuago dena, herritarren sentsibilitate guztiak. Gauza asko egin ahalko ditugu Udalean, baina hau bai izango dela gure ondorengoei lagako diegun ondasun garrantzitsu bat.

Tienes grandes retos por delante, como nuevo alcalde. Mencionaré algunos de ellos:

- Hemos comenzado a trabajar en el documento y en el eje más importante de la ciudad. Por fin hemos iniciado la revisión del plan general. Y este plan general ademas, no podrá salir solamente con los votos afirmativos del PSE, como el anterior, si no que tendrá que recoger todas las sensibilidades politicas para asegurar su aprobación, pero también y mucho más importante, todas las sensibilidades ciudadanas. Podremos hacer muchas cosas desde el Ayuntamiento, pero esta si que va a

ser una importante herencia que dejemos a los siguientes.

- Txonta edo Barrena bezalako auzo degradatuak biziberritzea. Errebal abian jarriko da, 13 urteren ostean; eskatzen dizugu mimoz trata dezazun, berritzailea izan dadila, modernoa, traktorea eta aitzindaria. Ez dadila izan edukiontzi berri eta garesti bat, betiko edukiak kokatzeko.

- Revitalizar barrios degradados como Txonta o Barrena. Errebal echará a volar, después de 13 años, te pedimos que lo mimes, que sea innovador, moderno, tractor y pionero. Que no sea un simple, nuevo y costoso continente para reubicar contenidos de siempre.

- Eta orain, hainbeste lagun, ezagun, lankide-ohi ditugularik administrazioetan, izan zaiteztela gai Eibar mapan jartzeko, baina ez bakar-bakarrik eraikuntzaren mapan. Izan ere, erronka garrantzitsu bat aberastasuna berreskuratzea da, sozioekonomikoko suspertzea. Eta inbertsio beharrezkoenak herriaren garapen ekonomikoarekin eta berrindustrializazioarekin lotuta daudenak dira.

- Y ahora que tenemos tantos amigos, conocidos, ex compañeros en distintas administraciones, que seais capaces de poner Eibar en el mapa, pero no solamente, únicamente, en el mapa de la construcción. Porque un reto importante es recuperar la riqueza, recuperarnos socioeconomicamente. Y las inversiones más necesarias son las relacionadas con el desarrollo económico y la reindustrialización de la ciudad.

  - Edo aurreko krisiaz geroztik dugun langabezia-tasa handi horri buelta ematea, zeren eta formakuntza-ekimen txikiekin ezin baitiegu buelta eman. Hemen beharrezkoa da inbertsio

  - O darle la vuelta a esta enorme tasa de desempleo que lastramos desde la anterior crisis, que esta visto que, con pequeñas iniciativas formativas puntuales, no estamos pudiendo

ausart bat egitea. Laneratzea eta lan-aktibatzea unean uneko laguntza puntualetatik harago lantzea.

darle la vuelta. Aquí también hace falta una inversión valiente. Trabajar concienzudamente la inserción y la activación laboral más allá de ayudas puntuales.

Nik ere modu adostaile batean amaitu nahi dut. Aurreko guztiaren aldeko apustua egiten baduzu, eta, batez ere, pertsonak eta eibartar guztien zaintza erdigunean jartzearen aldeko apustua, ziur EH BILDUrekin egingo duzula topo bidean.

Eskerrik asko.”

Yo también quiero finalizar conciliador: si apuestas por todo lo anterior y sobre todo, por poner en el centro a las personas, el cuidado de todos y todas las eibarresas, seguro que te encontrarás con EH Bildu en el camino.

Muchas gracias.”

**Mendicute Rodríguez jaunak**, EAJ-PNV udal taldeko bozeramaleak, honelaxe hitz egin du:

El **Sr. Mendicute Rodríguez**, portavoz del grupo municipal Eibarko EAJ-PNV, se pronuncia en los siguientes términos:

“Herenegun martxoak 11 urtebete Eibarko EAJ-PNVk idatzi bat erregistratu zeban, eskaera batekin: elkarlanerako mahai bat osatzia Covid-19ari aurre egitteko neurrixak adosteko. Hori izan zan Eibarren hartutako lehen ekimen politikua. Kostatu zan erreakzionatzia baina gauzak, gero, kaskadan etorri ziran: gaur urtebete ikastetxiak itxi ziran. Bixar urtebete itxialdixa hasi zan.

“Anteayer, 11 de marzo, se cumple un año que EAJ-PNV registró un escrito, con una petición: formar una mesa de trabajo para acordar medidas con el fin de hacer frente al Covid-19. Esa fue la primera iniciativa política que se tomó en Eibar. Costó reaccionar, pero luego las cosas vinieron en cascada. Hoy hace un año se cerraron las escuelas. Y mañana se cumple un año del inicio del confinamiento.

Gaur oindiokan bizi dogun egoera zailla jakun imaginatzia egun haietan. Ordutik hona 2.813 eibartarrek izan dabe koronabirusa. Ezer baino lehen, gogora ekarri nahi doguz koronabirusak jota hil diran 74 eibartarrak. Kolpe gogorra eibartarrondako.

Aquellos días todavía no podíamos imaginar que viviríamos una situación tan difícil. Desde entonces 2.813 eibarreses y eibarresas han pasado el coronavirus. En primer lugar, queremos traer al recuerdo a las 74 personas de Eibar que han muerto por coronavirus.

Un fuerte golpe para los eibarreses y las eibarresas.

Euskadiko udalerri kolpatuenetakua gara. 10.000 biztanletik gorako herrixetan, hirugarrena serie historikuan. Momentu honetan 86 eibartar dagoz, positibuakin, etxian edo ospittalian. Kolpia osasunari. Kolpia familixako, lagunarteko, pertsonen arteko harremaneri. Kolpia kulturari. Kolpia langillieri. Kolpia herriko autonomueri, enpresarixeri, dendarixeri, tabernarixeri. Kolpia haurrei, nagusixei. Kolpe gogorrari ari gara aurre egitten.

Somos uno de los municipios más golpeados de Euskadi. En poblaciones de más de 10.000 habitantes, los terceros. En este momento hay 86 eibarreses y eibarresas que han dado positivo y están en casa o en el hospital. Golpe a la salud. Golpe a las relaciones de familia, a la relaciones de los amigos, a la relaciones entre personas. Golpe a la cultura. Golpe a los trabajadores y a las trabajadoras. Golpe a los autónomos, a los empresarios, a los y las comerciantes y a los trabajadores y a las trabajadoras del sector hostelero. Golpe a los niños y niñas y a los mayores. Estamos haciendo frente a un golpe muy fuerte.

Eibartarrok ahalegiña egitten ari gara kontagixuak bajatzeko. Neurri berezixak hartzen, maitte doguzenak babesteko,

Los y las eibarresas estamos haciendo un esfuerzo para bajar el número de contagios. Tomando medidas para proteger a la gente que queremos, para

gure herrixa atzera be gorrixan ez sartzeko, ondorixuak ez pairatzeko.

que nuestro pueblo no vuelva a estar en rojo, y no tener que sufrir las consecuencias.

Eta egoera horretan, urtebetez pleno telematikuak egin ostian, gela honetako aforua aldatu dozue korrika batian. Zetarako? Zeintzuk dira zuen lehentasunak? Guriak esan doguz. Hasteko, osasuna. Gero, herri hau atzera be tente jarri eta aurrera egin.

Y estando en esa situación un año, después del pleno telemático, habéis cambiado el aforo a toda prisa. ¿Para qué? ¿Cuáles son vuestras prioridades? Las nuestras ya las hemos expuesto. Para empezar, la salud. Después, levantar otra vez el pueblo, y seguir adelante.

Urtebete honetan ahalegiñ haundixak egin doguz horretarako. Zenbat proposamen kaliak egokitzeko, garbitzeko, aforuak kontrolatzeko, sektore desberdiñak indartzen laguntzeko! Zenbat kezka, buruhauste, disgustu! Zenbat min!

Este año hemos hecho un gran esfuerzo para ello ¡Cuántas propuestas para acondicionar las calles, para limpiarlas, para controlar los aforos, para ayudar a reforzar diferentes sectores! ¡Cuántas preocupaciones, disgustos! ¡Cuánto dolor!

Harrigarrixa egin jata alkate interinuak gaurko bilkurari “acto” deitzia, eta ez “pleno”. Behin eta berriro. “Acto” eta “escaleta” hamaika bidar entzun detsat. “Pleno” eta “orden del día” behin be ez dau esan azken egunotan. Esanguratsua.

Me resulta llamativo que el alcalde interino al acto de hoy lo llame “acto” y no “pleno”. Una y otra vez. “Acto” y “escaleta” son términos que he oído un montón de veces. “Pleno” y “orden del día” ni una sola vez. Significativo.

Zertan datza eszenaratzea?

¿En qué consiste la puesta en escena?

Inbestidura saiuan Euzko Alderdi Jeltzaliak onartu eta aitortu egin zeban herrittarren erabakixa. Eta hala esan genduan:

En el acto de investidura El Partido Nacionalista Vasco aceptó y reconoció la decisión de la ciudadanía. Y así lo dijimos:

*“Guk maiatzaren 26ko hauteskunde-emaitza aitortzen dugu, agintaldi demokratiko bat bezala, zeinak lau urtez luzatzen baitu De los Toyos jaunaren ibilbidea Alkatetzan. Eibartarrek hemen jarri zaituzte hurrengo lau urteetarako. Azken urteotan, ez agian zure aldetik baina bai zure kideen aldetik, ikusi dugun jarrera zera izan da, edo nirekin zaude edo nire kontra. Aukera daukazu udal talde honen borondatea duen lankidetza bat izateko. Borondate bat proiektu zehatzetan islatu behar dena.”*

*“Nosotros reconocemos el resultado electoral del pasado 26 de mayo como un mandato democrático que prorroga por cuatro años más el recorrido del Señor De los Toyos en la Alcaldía. Los eibarreses y las eibarresas le han puesto a usted aquí para los próximos cuatro años. Durante los últimos años hemos visto, no tanto por usted sino por compañeras y compañeros suyos, una actitud de conmigo o contra mí. Tiene usted la oportunidad de experimentar en una colaboración que cuenta con la voluntad de este grupo municipal. Una voluntad que se tiene que trasladar a proyectos concretos”.*

Herrittarrek Alkatetza Euzko Alderdi Jeltzaliari emoten detsenian, jarrera bera eskatuko detsagu Alderdi Sozialistari. Arduraz jokatzia Eibarren alde. Eta zalantzak ditugu hala izango denik.

Cuando los eibarreses y las eibarresas den su voto al Partido Nacionalista Vasco, le pediremos la misma actitud al Partido Socialista. Actuar con responsabilidad a favor de Eibar. Tenemos serias dudas de que así vaya a ser.

Beste erakunde batzuetan dimisioaren ondoren hauteskundeak egitea izaten da ohikoena. Alderdi bakoitzak bere

Lo normal en otras instituciones es que tras la dimisión se celebren elecciones. Que cada partido presente a su

hautagaia aurkeztu eta herriak erabaki dezala. Zeren eta herri batean, hiri handi batean (baina neurri txikikoa), jende askok pertsonari ematen baitio botoa. Legediak ez du halakorik jasotzen udalentzat. Eta jokoa inguruabar horretaz aprobetxatzean datza. Zuek txanda-pasa egin nahi duzue. Zergatik?

candidata o candidato y el pueblo se pronuncie. Porque en un pueblo, en una gran ciudad (pero de pequeñas dimensiones), hay mucha gente que vota a la persona. La legislación no lo contempla para los ayuntamientos. Y el juego consiste en aprovecharse de esa circunstancia. Ustedes quieren saltarse ese paso ¿Por qué?

Alderdi Sozialistak beldurra dio errealitateari aurre egiteari, zeren eta aldaketa politikoa Eibarrera iristen ari da. Poliki-poliki, baina gelditzeke. Alderdi Sozialista ez da ausartzen bere hautagai berriarekin hauteskundeetara joaten 2023an, beste edozein hautagaik egingo genukeen bezala.

El Partido Socialista tiene miedo a enfrentarse a la realidad, porque la realidad es que el cambio político está llegando a Eibar. Poco a poco, pero de forma imparable. El Partido Socialista no se atreve a ir a las urnas en 2023 con su nuevo candidato, como cualquier otro candidato o candidata lo haríamos.

Zer irabazten du Eibarrek? Zer irabazten dute eibartarrek? Ez dira horiek erabaki hau hartzea eragin dutenak.

¿Qué gana Eibar? ¿Qué ganan los eibarreses y eibarresas? No son las preguntas que han llevado a esta decisión.

Eta zu izan zinen, Iraola jauna, guri leporatu ziguna gezurretan aritzea interes pertsonalen defentsan. Nik garbi jokatu nuen eta hala jarraituko dut, uste dudalako Eibarko jendeak merezi duela. Zuek ere hala uste duzue? Garbi jokatu duzue?

Y fue usted, señor Iraola, quien se aventuró a acusarnos a nosotras y nosotros de mentir en defensa de intereses personales. Yo fui claro y lo voy a seguir siendo, porque creo que la gente de Eibar se lo merece. ¿Ustedes lo creen? ¿Han actuado con claridad?

Idoya Sarasquetak, Alberto Albisteguik, Patxi Lejardik eta Patricia Arrizabalagak uko egin behar izan diote Alkatetzari, PSOEren zazpigarrena behin-behineko aldi honetarako aurkeztu ahal izateko. Udalbatza honen 16. zinegotzia izan zena bitarteko alkate izendatua izan ahal izateko. Eta publikoki aitortu denez, ez ziren gerora sortutako inguruabarrak: hitzartuta zegoen. Zuek zerbait eszenaratzeko beharra duzue. Zergatik? Zertarako?

Han tenido que renunciar a la Alcaldía Idoya Sarasqueta, Alberto Albístegui, Patxi Lejardi y Patricia Arrizabalaga para que el séptimo del PSOE pueda ser presentado para este periodo transitorio. El que fue el 16º concejal de esta Corporación pueda ser nombrado Alcalde interino. Y como se ha reconocido públicamente, no se trata de circunstancias sobrevenidas: estaba pactado. Ustedes necesitan escenificar algo. ¿Por qué? ¿Para qué?

Urtebete daramagu udalbatzak modu telematikoan egiten. Oraingoan, errekerimendu juridikoengatik, aurrez aurrekoa egin beharra zegoen. Hala ere, ez da aurreikusten publikoak interbentziorik egitea. Zer premia zegoen areto honen edukiera handitzeko, noiz eta bai udalbatzak bai batzordeak modu telematikoan egiten ari direnean, hain zuzen ere osasuna bermatzeko?

Llevamos un año celebrando los plenos de forma telemática. Esta vez, por requerimientos jurídicos, se exigía que fuera presencial. Sin embargo, no se prevé intervenciones del público. ¿Qué necesidad había de aumentar el aforo de esta sala cuando tanto los plenos como las comisiones se están celebrando de forma telemática, precisamente para garantizar la salud?

Harrigarrixa egitten jakuzen gauzak dagoz Udal honetan. Hirigintza saillian lan karga haundixa dake:

- Hainbeste, ezin izan dabela guk azaruan proposatutakua aztertu herriko tabernarixak laguntzeko.

Hay cosas en este Ayuntamiento que nos llaman la atención. En el Departamento de Urbanismo tienen mucha carga de trabajo.

- Tanta, que no han podido examinar la propuesta que realizamos en noviembre para ayudar al sector hostelero.

Hainbeste, ezin izan dittuela Arraguetako etxe zaharrak bota.

- Hainbeste, ez dabela konponbide bat lortu Kalbetoi 17rako.

- Tanta, que no han podido derribar las casas de Arragueta.
- Tanta, que no han logrado una solución para Calbetón 17.

Ulertzen doguz udal langilliak. Baiña ez dogu ulertzen zelan galdu arazi egin detsazuen denporia udal arkitektuari, zertarako eta gela honetako aforua haunditzeko. Zein da helburua?

Entendemos a los trabajadores y las trabajadoras del Ayuntamiento. Pero no entendemos cómo hacéis perder el tiempo a la arquitecta municipal, para qué y para aumentar el aforo de esta sala. ¿Cuál es el objetivo?

Udalbatza hau antolatu den moduak, batzarkide gehienen iritzia alde batera lagata, ez die erantzuten herriaren interesei. Alderdi Sozialistaren propaganda-premiei erantzuten die. Eta premia horiek agerian uzten dute etorkizunari aurre egiteko duten ahulezia.

La forma en la que se ha organizado este Pleno, obviando la opinión de la mayoría de la Corporación, no responde a los intereses de la ciudad. Responde a las necesidades propagandísticas del Partido Socialista. Unas necesidades que evidencian la debilidad con la que afrontan el futuro.

Nik gaur nire konpromiso pertsonala berretsi nahi dut, zeina nire taldeko kideena ere baden, eta, beraz, ordezkatzen dudan udal taldearena; Hortaz, hauxe hitzartzen dut:

- Udalbatza honen eta Herri honen aniztasuna errespetatzea;
- Nireak ez diren proposamenak eta iritziak

Yo quiero hoy reiterar mi compromiso personal, que es también el de mis compañeros y compañeras de grupo y, por tanto, el compromiso político del grupo municipal al que represento:

- de respetar la diversidad de esta Corporación y de esta ciudad;
- de respetar y tener en cuenta las propuestas y opiniones que no son las mías;

erespetatzea eta aintzat hartzea;

- Errespetatzea eta errespetua exijitzea udalbatzarkide guztienganako, haiek hartzen dutelako beren gain eibartar guztien ordezkaritza. Espero dut inork ez ahaztea hori.

- de respetar y exigir respeto para todas y todos los integrantes de esta Corporación, que ostenta en su conjunto la representación popular de la ciudadanía eibarresa. Espero que nadie lo olvide.

Udalbatza, herria ordezkatzen duen neurrian, bitarteko alkatearen gainetik dago. Are gehiago Herriak ez duenean alkatea aukeratu, baizik eta Herriaren Etxeak. Ez zaigu iruditzen bozketaren aurretik eztabaidari betoa jartzea denik modurik egokiena trantsizio-aldi hau hasteko. Guk uste dugu hausnartzea beharrezkoa eta aberasgarria dela. Baina hitzak bi gauza eskatzen ditu: aurrean dagoenak entzun nahi izatea, eta hitza esaten duenak hura betetzeko konpromisoa hartzea.

El Pleno, que representa al pueblo, está por encima del Alcalde interino. Más, cuando éste no ha sido elegido por el Pueblo, sino por la Casa del Pueblo. No nos parece que vetar el debate antes de la votación sea la mejor forma de empezar este periodo de transición. Nosotros creemos que la deliberación es necesaria y enriquecedora. Pero la palabra requiere de dos cosas: que quien está en frente quiera escuchar, y que quien la pronuncie se comprometa a cumplirla.

Gaur, hortaz, trantsizio-denbora bat zabaltzen da azken hauteskundeetan hautatutako alkatearen dimisiotik eta hurrengo udal hauteskundeetan hautatua izango den alkatearen izendapenera arte. Denbora bat, non behin-behineko alkatetza-eginkizunak betetzen dituenak gogoan izan beharko baitu nola iritsi den horra, eta herri honi

Se abre pues hoy un periodo transitorio entre la dimisión del alcalde elegido en las urnas en las últimas elecciones, y el alcalde que vaya a ser elegido en las próximas elecciones municipales. Un periodo en el que el que ocupe en funciones la alcaldía provisional deberá recordar cómo ha llegado ahí, y que en sus actuaciones se debe a esta ciudad y a este pleno que la representa.

eta ordezkatzen duen udalbatza honi zor diola kargua.

Udalbatza honen errealitatea den modukoa da. Miguelek izan zuen babesak ekarri zuen PSE-PSOE taldeak 9 zinegotzi izatea. Matematikek ematen dute zuek egingo zenutena, eta, izatez Patxi Lopez lehendakari izendatzeko egin zenutena egiteko. Baina eragiketa hark erakutsi zuen jendeari begiratu beharrean kalkulagailuei begira diharduen politikak daukan ibilbidea daukala.

La realidad en este Pleno es la que es. El apoyo que tuvo Miguel hizo que el PSE-EE PSOE lograra 9 ediles. Las matemáticas dan para hacer lo que ustedes hubiesen hecho, y de hecho, hicieron para nombrar a Patxi López Lehendakari. Pero aquella operación demostró que la política que mira a las calculadoras en vez de a los ojos de la gente tiene el recorrido que tiene.

Horregatik ez dugu gaur gure hautagaitza aurkezten. Eta ez dugu babesten ezta herriari inolako onurarik ez dakarkion eta estrategia politiko baten parte den hautagaitza hau ere. Eta iragarri nahi dugu jarraituko dugula herri honen onerako exijitzen zaigun erantzukizunaz jokatzen, herriaren etorkizunaz kezkaturik baikaude; eta erronkatzat hartzen dugu herritarrei ilusioa piztuko dien etorkizuneko proiektu bat eskaintzea, erreleboa hartuko duena gaur zabaltzen den trantsizio-aldiaren ondoren.

Por eso no presentamos nuestra candidatura hoy. Tampoco apoyamos la que se nos presenta como parte de una estrategia política que en nada beneficia a la ciudad. Y anunciamos que seguiremos actuando con la responsabilidad que se nos exige por el bien de esta ciudad, cuyo futuro nos preocupa, y asumimos el reto de ofrecer a la ciudadanía un proyecto de futuro ilusionante que asuma el relevo tras el periodo de transición que hoy se abre.

Eibarrek apustua egin behar du pertsonak politiken erdigunean jartzeko. Desberdintasun sozialak murrizteko eta

Eibar debe apostar por poner a las personas en el centro de las políticas. Por reducir las desigualdades sociales y

herri inklusiboago bat egiteko alderdi guztietan. Jarduera ekonomikoak eszenategi teknologiko berrian birkokatzeko. Herriaren trantsizio ekologikoari ekiteko. Eta hori guztia bere identitate-zeinuetan sakonduz egin behar du. Guretzako nekez izango dogu eibartartasunik gure euskeria barik. Ez dira esne-berbak.

convertirse en una ciudad más inclusiva en todos los aspectos. Reposicionar las actividades económicas en el nuevo escenario tecnológico. Una ciudad en tránsito ecológico. Y todo ello debe hacerlo profundizando en sus señas de identidad. Para nuestro grupo, difícilmente tendremos eibartarrismo sin euskera. Y no son palabras huecas.

Eta bide horretan aurrera egin nahi badozue, aurkittuko gaittuzue: Barrena kalia pasialeku bihurtzen, Urkusualdia berreskuratzen, Txonta sensibilidadez zaharberritzen, Geltoki Intermodala egitten, trafikua zentrotik ataratzen, hilerrixa kendu eta parke bat egitten, auzuetako kulturetxiak zabaltzen, Merkatu Plaza postu guztiekin (guztiekin) irekitzen, Polo Teknologikua garatzen eta lurzoru industriala sortzen, pabilloi hutsak berreskuratzen, euskal kulturiaren aldeko benetako apostua egitten, gure mendixak zaintzen, aparkaleku perimetralak egitten, gure kalieri emakumien izenak jartzen. Horrelakuetan, beti eukiko gaittuzue elkarlanerako prest. Izan be, guk burubelarri jarraituko dogu proiektu horietan, eta Eibarren aldeko proiektu guztietan, Eibar izan dadin smart city bat, lan eta bizitzeko leku hobe bat hurrengo belaunaldientzat.

Si queréis avanzar en ese camino, ahí nos encontraréis: Convirtiendo la calle Barrena en un paseo, recuperando la zona de Urkizu, regenerando Txonta con sensibilidad, realizando la parada Intermodal de autobuses, sacando el tráfico del centro, quitando el cementerio y creando un parque, abriendo casas de cultura en los barrios, abriendo la Plaza del Mercado con todos los puestos, todos, desarrollando el Polo Tecnológico y creando suelo industrial, recuperando pabellones vacíos, apostando de verdad por la cultura vasca, cuidando nuestros montes, creando aparcamientos perimetrales, poniendo nombres de mujeres a nuestras calles. Para todo eso, siempre nos tendréis dispuestos a trabajar juntos. De hecho, nuestro grupo seguirá trabajando de lleno en esos proyectos, y en todos los proyectos a favor de Eibar, con el fin de que Eibar sea una *smart city,* y un lugar mejor para

vivir de cara a las próximas generaciones.

Denok nahi dugun Eibar baten alde jarraituko dugu lanean, geure aldetik zenbait gauza alde batera laga behar baditugu ere, are protagonismo politikoa galduz. Eibar hori delako denden pertsianak jasotzen dituena, tailerretako makinak pizten dituena, behar duenari laguntzen diona, kolektibo sozial, kultural eta deportiboak aktibatzen dituena; Eibar hori delako amets egiten duena egunero etorkizun hobe batekin, gau eta egun borrokatzen dena aurrera irteteko, eta herri hobe bat eraikitzeko, hurrengo belaunaldiak harro senti daitezen, gu gure aurreko belaunaldiez harro sentitu ginen bezala.

Esa Eibar por la que aspiramos, por la que trabajamos cada día dejándonos pelos en la gatera e incluso cediendo protagonismo político. Esa Eibar es la que levanta las persianas de comercios, la que enciende las máquinas de los talleres, la que ayuda a quien lo necesita, la que activa los colectivos sociales, culturales, deportivos; la que sueña cada día con un futuro mejor, la que lucha noche y día por salir adelante, por construir un Eibar de la que las próximas generaciones puedan sentirse orgullosas como nos sentimos con las que nos precedieron.

Horixe da gure gain hartzen dugun konpromisoa. Gauzak aldatzea Eibar gero eta Eibarrago izateko. “

Ese es el compromiso que asumimos. Cambiar las cosas para que Eibar sea cada vez más Eibar.”

PSE-EE udal taldearen izenean, De los **Toyos Nazabal jaunak** hartu du hitza:

En nombre del grupo municipal del PSE-EE interviene el **Sr. De los Toyos Nazabal**:

“Egun on guztioi.

“Buenos días a todos y a todas.

Eskerrak ematen dizkiet hemen gera nadin nahi duten oposizioko alderdiei. Nork esango zukeen prest egongo zinetela ni Eibarko alkate izaten jarraitzeko?

Doy las gracias a los partidos de la oposición que quieren que me quede. ¿Quién hubiera dicho que estuvierais dispuestos a que siga como Alcalde de Eibar?

Gaur egun handia da Eibarrentzat, egun handia da Jonentzat, egun handia da niretzat eta alderdi sozialistarentzat, Udal honentzat eta hiri honentzat, eta uste dut horrela ikusten ez duenak, horrek bai dituela interes alderdikoiak.

Hoy es un gran día para Eibar, es un gran día para Jon, es un gran día para mí y para el Partido Socialista, para este Ayuntamiento y esta ciudad, y creo que quien no lo vea así sí que tiene intereses partidistas.

Otsailaren 24tik hona, karguari uko egiteko aurkeztu nuen nire idatzitik hona, errelebo hau zatartzeko prozesu etengabe baten aurrean gaude; Eibar suntsituta dagoela entzun izan dugu, "Euskadiko Mordor", inork bizi nahi ez duen herria.

Desde el 24 de febrero, fecha en la que presenté mi escrito de renuncia, estamos asistiendo a un proceso permanente de afear este relevo; hemos oído hablar de un Eibar de tierra quemada, “el Mordor de Euskadi” donde nadie quiere vivir.

Oposizioko alderdiak ibili dira esaten alkate honek oso gutxi egin duela, eta egindakoa beste erakunde batzuei esker izan dela.

Así, los partidos de la oposición se han dedicado a decir que este Alcalde ha hecho poco y que lo hecho ha sido gracias a otras instituciones.

Gorka: beste erakunde batzuetan dagoenean Eibarren garrantzia argi duen alderdi bat bada, hori Alderdi Sozialista da, ez izan dudarik. Badira beste alderdi batzuk, ordena eta agintea duten hainbat erakundetan egon direnak

Gorka: si hay un partido que tiene claro la importancia de Eibar cuando está en otras instituciones es el Partido Socialista, no lo dudes. Hay otros partidos que han estado y están en diferentes instituciones con orden y

eta daudenak, eta Eibar ahaztu egin dutenak; ez da Alderdi Sozialistako ordezkarien kasua, haren kargu hautetsiek eta kudeatzaileek Eibar beti jarri baitute mapan.

mando y se han olvidado de Eibar; no es el caso de los representantes del Partido Socialista, puesto que sus cargos electos y gestores siempre han colocado a Eibar en el mapa.

Gaur ez dut hiriaren egoerari buruzko eztabaidarik ekarri nahi izan, ez zela beharrezkoa uste bainuen, beraz, arren eskatzen dut kalera irtetea, horixe delako egin dezakegun eztabaidarik onena, eta gaur ospitalean txertoa hartzen ari diren ehunka lagunei galdetzea ea merezi izan duen Eibarren ospitale bat egotea; arren eskatzen dut Teknikerrekin harremanak dituen edozein enpresabururekin elkartzea eta hari galdetzea  Eibarren geratzea ona izan den; arren eskatzen dut bidegorritik pasioan ari direnei galdetzea ea merezi izan duen bide hori gauzatzeko egindako ahaleginak; arren eskatzen dut Eibarko edozein auzotara joatea eta ikustea emakumeak, gizonak eta umeak igogailuak eta eskailera mekanikoak erabiltzen, eta galdetu haiei ea merezi izan duen egitea. Eta ez dakit hori guztia alkate honek egin duen, Udalak edo beste erakunde batzuek egin duten, baina egia da zerikusi handia izan dugula hori guztia posible izatearekin, eta, azken batean, herritarrek dute azken erabakia. Noski, argi-ilunak daude, eta oposizioa arduratzen da hori mahai gainean jartzeaz; horregatik,

Hoy no he querido traer un debate sobre el estado de la ciudad, porque creía que no haría falta y, por tanto, apelo a salir a la calle, al ser el mejor debate que podemos hacer y se pregunte a las cientos de personas que hoy se están vacunando en el hospital si ha merecido la pena que exista un hospital en Eibar; apelo a cruzarnos con cualquier empresario que tiene relaciones con Tekniker, si es bueno que se haya quedado en Eibar; apelo a preguntar a quienes están paseando por el bidegorri si mereció la pena el esfuerzo empleado para hacerlo posible; apelo que vayamos a cualquier barrio de Eibar y veamos a mujeres, hombres y niños utilizar los ascensores y las escaleras mecánicas y les preguntemos si mereció la pena hacerlas. Y no sé si todo esto lo ha hecho este Alcalde, el Ayuntamiento u otras instituciones, pero sí es cierto que hemos tenido mucho que ver en que sea posible y, en última instancia, es la ciudadanía quien tiene la última decisión. Lógicamente hay claroscuros y ya se encarga la oposición de ponerlo sobre la mesa, por esta razón, quizás nuestro trabajo sea

agian gure lana argiak nabarmentzea eta ilunak argi bilakatzeko lan egitea da.

resaltar los claros y trabajar para que los oscuros se conviertan en claros.

Era berean, prozesu hau zatartu egin nahi izan da, bilkuraren izaera presentziala eta aretoaren edukiera kritikatuz, baina modu presentzialean egin izan balitz eta ateak itxita, orduan esango zen hertsatu egiten zela publikoaren presentzia. Egia da osoko bilkura honetan Jon Iraola hiriari aurkezten zaiola, eta gertaera hau hanka-puntetan pasatzea nahi duzue, gertatuko ez balitz bezala. Inbestidurako osoko bilkurak onartzen diren legezko neurri guztiekin egin ahal izateko behar adinako garrantzia du.

También se ha querido afear este proceso criticando el carácter presencial y el aforo de la sala, aunque si se hubiera realizado presencial y a puerta cerrada se habría afirmado que se coartaba la presencia del público. Bien es cierto que en este pleno se va a presentar a Jon Iraola a la ciudad y queréis que este hecho pase de puntillas, como si no pasara. Un pleno de investidura tiene la suficiente importancia para que pueda realizarse con todas las medidas legales que se permiten.

Arkitekto andreari denbora alferrik galaraztea leporatu digute —ikusi beharko litzateke beste alderdi batzuen idazkiekin zenbat denbora galtzen duen—, araudiak baimentzen duen edukiera zehazten duen txosten bat egitea, horixe besterik egin ez duenean. Izan ere, osasun-errealitateak konplikatua izaten jarraitzen badu ere, gaur eun orain dela hilabete batzuk arte ezinezkoak ziren jarduerak egin daitezke, zehazki, espazio itxietan.

Se nos ha acusado de hacer perder el tiempo a la arquitecta, -habría que ver el tiempo que pierde con escritos de otros partidos- cuando simplemente ha realizado un informe en el que se fija el aforo que la normativa permite, puesto que, a pesar de que la realidad sanitaria continúa siendo complicada, a día de hoy se pueden realizar actividades que hasta hace unos meses eran imposibles, concretamente en los espacios cerrados.

Horregatik, bilkura hau edukieren inguruan ezarritako osasun-araudi

Por eso, este pleno está cumpliendo toda la normativa sanitaria establecida

guztia ari da betetzen, eta horregatik, egin ahal bada, ez dut ulertzen zergatik ez den egiten. Mahaian jarri nahi izan da bilkura publiko kontrolatu batekin egitea, nortzuk datozen jakinda, kutsatzeren bat izanez gero neurriak hartu ahal izateko, baina ez da gai horretan sartu nahi izan. Ondorioz, ez da ezer inposatzen ari eta legez ezarritako segurtasun-neurri guztiekin ari da egiten.

en cuanto a aforos, y por esta razón si se puede hacer, no entiendo por qué no se hace. Se ha querido poner sobre la mesa que se haga con un público controlado, sabiendo quién asiste para poder tomar medidas en caso de que se produjera algún tipo de contagio, pero no se ha querido entrar en esa cuestión. En consecuencia no se está imponiendo nada y se está celebrando con todas las medidas de seguridad establecidas legalmente.

Legegintzaldi erdian itsasontzia uztea ere kritikatu da, eta hau guztia politika- eta alderdi-estrategia bat dela esan da. Arrazoi horregatik, ariketa bat egin dut, banekielako gai hau atera egingo zela. Hala, ni zazpi aldiz aurkeztu naiz zerrendetan, batzuetan taldekide gisa eta beste batzuetan zerrendaburu legez. Bestalde, EAJk 1995ean Amatiño aurkeztu zuen, eta hark agintaldia amaitu egin zuen; 1999an Javier Zorrakin aurkeztu zuen, hark udal taldearen bozeramaile izateari berehala utzi eta beste kide batek ordezkatu zuen; 2003an Julián Eraso aurkeztu zen, eta ahal izan zuenean Eusko Jaurlaritzara joan zen; 2007an, Aitor Alberdi izan zen hautagaia eta uko egin zion agintaldiaren erdian; 2011n, Eva Juez izan zen eta agintaldia amaitu zuen; 2015ean berriro errepikatu zuen Eva Juezek, baina ordezkatu egin zuten

También se ha criticado que se abandone el barco a mitad de legislatura y que todo esto es una estrategia de política y de partido. Por esta razón, he realizado un ejercicio porque sabía que este tema saldría a relucir. Así, yo me he presentado siete veces en listas, en algunas como miembro del equipo y en otras como cabeza de lista. Por su parte, el PNV en 1995 presentó a Amatiño, quien terminó la legislatura; en 1999 presentó a Javier Zorrakin, quien inmediatamente dejó de ser portavoz del grupo municipal, siendo sustituido por otro miembro del mismo; en 2003 se presentó Julián Eraso, que se fue al Gobierno Vasco en cuanto pudo; en 2007 fue Aitor Alberdi el candidato y renunció a mitad de legislatura; en 2011 fue Eva Juez, finalizando el mandato; en 2015 volvió a repetir Eva Juez, pero fue sustituida como portavoz. En este

bozeramaile bezala. Une honetan agintaldiaren erdian gaude eta ez dakigu nola amaituko den.

momento, nos encontramos en la mitad de la legislatura y no sabemos cómo terminará.

EAJk “itsasontziak uzteari” buruzko lezioak ematen ditu, baina irizpide horren arabera, alkate izatean ezingo litzateke kargua utzi, baina kargua uztea posible izango litzateke herritarrek beste erantzukizun bat eman badigute. Nire ustez, beti izan behar da arduratsua, eta, talde batean baldin bazaude, talde horren burua izanik, agintaldia osatu egin behar da herritarrek eman dizuten postu horretan. Gainera, nik, eta ni bezalako beste jende askok, 12 urtez eskolta eraman dugu, eta ez diogu uko egin, berriro aurkeztu gara. Horregatik guztiagatik, gauzak egiteko moduari eta herritarrekiko erantzukizunari buruzko lezioak entzun egiten dira, onartu eta ikasi, baina doi-doi, ez hortik aurrera.

El PNV da lecciones sobre “abandonar barcos”, pero según ese criterio cuando se es Alcalde no se podría dejar el cargo, pero sí sería posible en el caso de que la ciudadanía nos haya concedido otra responsabilidad. Entiendo que siempre hay que ser responsable y, si estás en un equipo, siendo la cabeza visible del mismo hay que completar la legislatura en el puesto en el que te haya colocado la ciudadanía. Además, yo, y mucha gente como yo, durante 12 años hemos llevado escolta y no solo no hemos renunciado sino que nos hemos vuelto a presentar. Por todo ello, las lecciones sobre cómo hacer las cosas y responsabilidad para con la ciudadanía, se escuchan, se asumen, se aprende, pero las justas.

Kasu honetan, 26 urte igaro ondoren, egoera bat gertatu da, eta batzuk estrategiez eta prozesuez berba egiten duten arren, inor ez dago egia absolutuaren jabe, eta inork ezin du kotoiaren proba pasatu.

En este caso, se ha producido una circunstancia después de 26 años, y aunque algunos hablen de estrategias y procesos, nadie está en posesión de la verdad absoluta ni nadie puede pasar la prueba del algodón.

Beraz, enpatia pixka bat gehiago gustatuko litzaidake, ekintza normalizatuago bat ahalbidetu izana ez bailitzateke gaizki etorriko eta. Ulertzen dut bakoitzak bere diskurtsoa planteatzea kanpaina egiteko —nahiz eta Alderdi Sozialistari hautagai bat prestatzeaz akusatu—, mundu guztia baitago kanpainan, Josu bezala, hauteskunde-programa oso bat aurkeztu baitu. Nire ustez, hori guztia esatea soberan zegoen gaurkoa bezalako ekitaldi batean.

Así pues, me habría gustado un poco más de empatía, ya que haber permitido un acto más normalizado no habría venido mal. Entiendo que cada cual plantee su discurso para hacer campaña -aunque se esté acusando al Partido Socialista de preparar un candidato-, porque todo el mundo está en campaña, como Josu, que ha presentado todo un programa electoral. En mi opinión decir todo esto sobraba en un acto como el de hoy.

Nabarmendu dut ekitaldi hau oso garrantzitsua dela, Alderdi Sozialistak funtsezko urrats bat eman duelako hirian; eta berriro erakutsi du hiria garrantzitsua dela alderdiarentzat; uste dut Alderdi Sozialistak Eibar maite duela eta hori erakutsi nahi duela eta erakutsi baita Eibarren alde lanean jarraitu nahi duela. Horretarako, beharrezkoa da laguntza izatea, baina laguntza horiek proiektuetatik, taldeetatik eta pertsonetatik datoz. Denbora honetan guztian herritarren konfiantza izateko zortea izan dut, proiektu handiak izateko zortea, baina, batez ere, nire inguruan pertsona handiak izan ahal izateko zortea, eta pertsona horietako bat Jon da, pertsona gaztea eta ikaragarri ondo prestatua, baina, batez ere, Udalaren funtzionamendua zein den badakiena, eta hiri hau ezagutzen hasi dena —lan

Ya he destacado que este es un acto muy importante porque el Partido Socialista ha dado un paso fundamental en la ciudad; y ha vuelto a demostrar que la ciudad es importante para el partido; creo que el Partido Socialista quiere a Eibar y quiere demostrarlo y demostrar que quiere seguir trabajando por Eibar. Para ello, es necesario contar con apoyos, pero esos apoyos vienen derivados de los proyectos y de los equipos y de las personas. Yo he tenido la suerte a lo largo de todo este tiempo de contar con la confianza de la ciudadanía, de contar con grandes proyectos, pero sobre todo he podido contar con grandes personas a mi alrededor y una de esas personas es Jon, persona joven y tremendamente preparado, pero sobre todo que sabe lo que es el funcionamiento del

zaila—, eta garrantzitsuena: pertsona konprometitua eta zintzoa dela, printzipioak eta balioak dituena. Horrekin, konfiantza-tartearekin eta denborarekin alkate bikaina izango da; beraz, nire ilusioa izango litzateke Eibarko herritarrek niri eman didatena baino askoz sostengu gehiago ematea, eta hori lanaren ondoren etorriko den emaitza izango da.

Ayuntamiento y que empieza a conocer esta ciudad -labor complicada- y lo más importante es que se trata de una persona comprometida y honesta, con principios y valores. Con todo eso, con margen de confianza y con tiempo va a ser un magnífico Alcalde, por lo que sería mi ilusión que la ciudadanía eibarresa le dé muchísimo más apoyo que el que me ha dado a mí, algo que llegará fruto del trabajo.

Esan ohi da kasu hauetan ez dela zortea opa behar, behar dena lana delako, baina nik bai, nik zortea opa nahi dut, baina zorteak lanean harrapa zaitzala.

Suele decirse que en estos casos no hay que desear suerte, porque lo que se necesita es trabajo, pero yo sí quiero desearte suerte, pero que te pille trabajando.

Zorionak, Jon."

Felicidades, Jon."

**Alkate-udalburu jaunak** honako mintzaldi hau egin zuen:

Por su parte, el **Sr. Alcalde-Presidente** pronuncia el siguiente discurso:

"Egun on guztioi.

"Buenos días a todas y todos.

Uste dut ez dizuedala ezer deskubrituko esaten badizuet gaurkoa oso egun hunkigarria dela niretzat. Lehenik eta behin, hunkigarria, nire hiriko alkate bihurtzeak suposatzen

Supongo que no os descubra nada si os digo que el de hoy, es un día muy emocionante para mí. Primero, emocionante por lo que supone convertirme en alcalde de mi ciudad,

duenagatik. Horrek dakarren guztiarekin. Eta hunkigarria ere, nahiz eta COVID- 19aren pandemiak mugak ezarri, gaur honaino hurbildu zaretenengatik. Osoko bilkura honetan egon nahi izan duzuenongatik eta une berezi hau nirekin partekatu nahi izan duzuenongatik.

con todo lo que eso conlleva. Y segundo, emocionante también por quienes os habéis acercado hoy hasta aquí, a pesar de las restricciones que impone la pandemia del COVID- 19. Por quienes habéis querido estar presentes en este pleno y compartir conmigo este momento tan singular.

Hala ere, ezin ditut burutik kendu gaur hemen ez daudenak, hemen egon nahi izan arren, egoterik izan ez dutenak. Azkenaldian betiko utzi gaituzten pertsona guztiak, batez ere, azken urte zail honetan utzi gaituztenak. Eta, hemen nagoela, ezin dut burutik kendu nire aita zena, joan zen otsailaren 27an hil zena. Gaixotasunak aurrera egin arren, ilusio handia egiten zion gaur hona etortzeak, inolaz ere ez zukeen huts egingo osoko bilkura honetan. Zoritxarrez, ez zuen denborarik izan. Dagoen lekuan dagoela ere, badakit osoko bilkura hau arretaz ari dela jarraitzen, eta, batez ere, nik orain bertan dudan emozio berberarekin.

No puedo, sin embargo, evitar pensar en quienes hoy no están aquí, en quienes queriendo estar, no han podido. En todas las personas que nos han dejado en los últimos tiempos; sobre todo, en este último año tan difícil. Y, no puedo evitar aquí pensar en mi aita, que falleció el pasado 27 de febrero. A pesar de lo avanzada que tenía ya su enfermedad, le hacía mucha ilusión venir hoy y no se habría perdido este pleno por nada del mundo. Desgraciadamente, no tuvo tiempo. Me quedo con que allá donde se encuentre, esté siguiendo este pleno con atención y, sobre todo, con tanta emoción como la que yo tengo ahora mismo.

Baina une honetako emozioetatik harantzago —logikoak eta normalak, Osoko Bilkura honek niretzat maila pertsonalean suposatzen duenagatik—, aitortzen dizuet oraintxe bertan, horrez gain, erantzukizun-sentimendu sakon ezinago bat dudala.

Pero más allá de las emociones propias del momento, lógicas y normales por lo que este Pleno supone para mí a nivel personal, os confieso que ahora mismo me embarga además un profundo sentimiento de responsabilidad.

Eibarko hiriaren alkate izatea ohore handia da. Niretzat ez dago nire herriko alkate izatea baino gauza garrantzitsuagorik. Oso jende gutxik izaten du, zinez, bere bizitzan ohore hau izateko aukera, eta horregatik nago izugarri eskertua.

Ser el alcalde de la ciudad de Eibar es un gran honor. No hay nada más importante para mí que ser el alcalde de mi ciudad. Un honor que realmente muy poca gente tiene la oportunidad de tener en su vida y por ello me siento tremendamente agradecido.

Baina, sentimendu honetatik harantz, lehenxeago nioen bezala, badakit karguak erantzukizun handia dakarrela bere baitan. Erantzukizun honetaz erabat kontziente naiz, eta, erabat kontziente naiz baita ere, kargua umiltasunez onartzeko moduan nagoela eta Eibarko herritar guztien aurrean onartzen dudala.

Pero, más allá de este sentimiento, como decía, soy consciente de que el cargo trae consigo una gran responsabilidad. Una responsabilidad de la que soy plenamente consciente y que, también plenamente consciente, me encuentro en disposición de asumir y asumo con humildad ante toda la ciudadanía eibarresa.

Nire herria duintasunez ordezkatzeko erantzukizuna. Eibartar guztientzat lan egiteko erantzukizuna, salbuespenik gabe, eta azpimarratu nahi dut: inongo salbuespenik gabe, ekimen bakoitzarekin, erabaki bakoitzarekin, herritarren bizi-baldintzak eta bizi-kalitatea hobetzen saiatuz; Eibar herri oparoagoa, modernoagoa, atseginagoa eta berdintasunezkoagoa egiten saiatuz, non lan egitea, bertako denda eder eta askotarikoetan erosketak egitea, kirola egitea, antzerki- edo zine-saio batez gozatzea, jatetxe batean jan edo afaltzea, zerbait hartzera irtetea,

La responsabilidad de representar dignamente a mi ciudad. La responsabilidad de trabajar para todos los eibarreses y todas las eibarresas sin excepción, y lo subrayo, sin excepción, intentando con cada iniciativa, con cada decisión, mejorar las condiciones y la calidad de vida de la ciudadanía, hacer de Eibar una ciudad más próspera, más moderna, más amable y más igualitaria, en la que dé gusto trabajar, hacer compras en su rico y variado comercio, practicar deporte, disfrutar de una sesión de cine o de teatro, un concierto, comer o cenar en un restaurante, salir a

edo, besterik gabe, pasioan ibiltzea, hori guztia gustura egingo den.

tomar algo o simplemente, dar un paseo.

Azken finean, lan egitea Eibar gustura bizi izateko herria izan dadin.

En definitiva, trabajar para hacer de Eibar una ciudad en la que dé gusto vivir.

Uste dut guzti horretan oinarritu beharko lukeela alkate baten eta bere lan-taldearen egitekoaren oinarriak.

Considero que todo lo anterior constituye o debería constituir la base de la labor de un alcalde y de su equipo.

Eta horretatik asko ikasi dut Eibarko Alkatetzaren erreleboa hartu diodan Miguel de los Toyosengandik, azken urteetan haren lan-taldeko kide izan bainaiz. Egunez egun hark egiten zuen lanari erreparatuz, berarekin bileretara joanez, sarri askotan era guztietako galderak eta galderak eginez, zer egin behar dudan, zer ez dudan egin behar galdetuz, haren iritzia eskatuz... Horrela bildu dut esperientzia eta ezagutza-baliabide ugari, segurtasun osoz, gaurtik aurrera, praktikan jarri ahal izango ditudanak, eta, zalantzarik gabe, eguneroko lanean lagungarri suertatuko zaizkidanak.

Y mucho de todo eso lo he aprendido de la persona a quien relevo en la alcaldía de Eibar, de Miguel de los Toyos, de cuyo equipo he formado parte durante los últimos años. Observando su labor día a día, asistiendo a reuniones con él, abrasándole muchas veces a preguntas de todo tipo, qué hago, qué dejo de hacer, recabando su opinión… he recopilado un bagaje de experiencias y conocimientos que, con toda seguridad, tendré oportunidad de poner en práctica de hoy en adelante y que, sin duda, me servirán de guía en el trabajo diario.

Miguel, ez dut dudarik, hirirako erreferente bat izan da eta da, eta listoia oso goian jarri dit.

Miguel ha sido y es, no me cabe ninguna duda, un referente para la ciudad y me deja el listón muy alto.

Orain niri tokatzen zait txanda hartu eta haren arrastoari jarraitzea, bai berarenari nahiz herri honek izan dituen gainerako alkateenari eta alkatesarenari, eta ohorez eta erantzukizun handiz nire gain hartzen dudan karguaren ondorengo duina izatea.

Ahora es mi turno para seguir su estela, tanto la suya como la del resto de alcaldes y alcaldesa que esta ciudad ha tenido, y convertirme en un digno sucesor del cargo que, como vengo diciendo, asumo con tanto honor y con mucha responsabilidad.

Ez dut ezer berririk esango Eibarko Alkatetzaren buru jartzeak errespetua ematen duela esaten badut. Errespetua ematen du, errespetu handia.

Tampoco descubro nada si digo que ponerme al frente de la alcaldía de Eibar impone. Impone y mucho.

Ostera, ez nau ikaratzen. Ez dit beldurrik ematen. Erronka bat da, ilusioz beteriko erronka, nire bizitza politikoaren etapa berri bat, 2017ko azaroan bete-betean hasi nuena, utzi nuenean EROSKI kooperatibako sail juridikoa, eta tristeziaz utzi ere, ez dut ukatuko, kooperatiba horretan 2002tik ari bainintzen lanean, eta une honetan kooperatiban eszedentzian dagoen bazkide naiz, eta oso oroitzapen ona dut, batez ere lan egiteko zortea izan nuen lankideena.

Sin embargo, no me asusta. No me da miedo. Es un reto, un reto muy ilusionante, una nueva etapa de mi vida política, ésa que inicié de lleno en noviembre de 2017 cuando abandoné, con gran tristeza por otra parte, no lo voy a negar, el departamento jurídico de EROSKI, S. COOP., cooperativa en la que llevaba trabajando desde 2002, de la que soy socio en excedencia y de la que tengo un excelente recuerdo, especialmente de los compañeros y compañeras con quienes tuve la suerte de trabajar.

Kooperatibako legelari-postuaren segurtasuna eta erosotasuna aldatu nituen, lanaren, denboraren eta

Cambié la seguridad y el confort de mi puesto de letrado en la cooperativa, bien controlado a base de trabajo, de tiempo

ahaleginaren bidez ondo kontrolatuta zegoena, nire hiria zerbitzatu eta haren alde eta harentzat lan egiteko erronka onartzeko.

y de esfuerzo, para asumir el desafío de servir a mi ciudad y trabajar por ella y para ella.

Hori da orduan, 2017an, kontzienteki nire gain hartu nuen konpromiso sendoa, orain indar handiagoarekin berresten dudana.

Este es el firme compromiso que conscientemente asumí entonces, en 2017, y que revalido ahora, con mucha mayor intensidad.

Badakit, ezen, lehen esan dudan bezala, Eibar hiri eredugarria, oparoa, modernoa, atsegina, berdinzalea eta elkarbizitza-eredu bada ere, eta bertan bizi izateak gustua ematen badu ere, oraindik lan handia dagoela egiteko. Eta bihar horri ilusio eta gogo handiz egiten diot aurre.

Soy consciente de que aunque, como decía antes, Eibar es una ciudad ejemplar: próspera, moderna, amable e igualitaria, modelo de convivencia, en la que da gusto vivir, aún queda un gran trabajo por hacer. Y a ese trabajo me enfrento con mucha ilusión y muchas ganas.

Eta horretarako, oso lantalde fidagarria izango dut, lana gogor egiten ohitua, nork bere arloa ondo ezagutzen duena, kohesionatua eta, batez ere, beraien hiriaren alde eta hiriarentzat lan egiten jarraitzeko gogo handia duena, eta hemendik bertatik eskerrak eman nahi dizkiet euren konpromisoagatik eta dedikazioagatik.

Y para ello voy a contar con un equipo muy solvente, acostumbrado a trabajar duro, que conoce bien sus respectivas áreas, cohesionado y, sobre todo, con muchas ganas de seguir trabajando por y para su ciudad y a quienes, desde ya, quiero agradecerles su compromiso y su dedicación.

Lan zorrotza, ez dut inongo dudarik. Eibartarrak bezain zorrotza, eta hala behar du izan, herritarrek ondo egiten

Un trabajo exigente, no me cabe duda. Tan exigente como lo es, y así debe ser, la ciudadanía eibarresa que hace bien

baitute alkateari eta euren ordezkari politikoei duten onena eman dezaten exijituz; hala espero dute-eta. Egi benetan, ez nuke kontrakorik ulertuko.

esperando y exigiendo lo mejor de su alcalde y sus representantes políticos. Sinceramente, no entendería lo contrario.

Emozioa, erantzukizuna, lana, konpromisoa… Baina ez dut baztertu nahi eta ezin dut baztertu elkarrizketa premia. Ez dut nahi eta ezin dut baztertu berba egiteko, eztabaidatzeko eta akordioetara iristeko premia. Akordioak, politikagintzan beti hain beharrezkoak eta gizarte gisa gaur egun gauden tokiraino aurrera egiteko aukera ematen digutenak, bizi ditugun bezalako une berezi hauetan garrantzia handia hartzen dutenak. Hain akordio garrantzitsuak eta, bestalde, hain desiratuak.

Emoción, responsabilidad, trabajo, compromiso… Pero no quiero ni debo olvidarme del diálogo. No quiero ni debo olvidarme de la necesidad de hablar, de debatir y de llegar a acuerdos. Acuerdos, tan necesarios siempre en política y que nos han permitido como sociedad avanzar hasta donde hoy estamos y que adquieren especial importancia en momentos tan excepcionales como los que vivimos. Acuerdos tan importantes y, por otra parte, tan deseados.

Sinetsita nago Eibarko herritarrek, beren pragmatismoan, ez dutela gugandik espero ezertarako ez diren demandak eta eztabaidak. Konponbideak nahi dituzte. Gauzak egin daitezen nahi dute. Eibarrek hitz egiteko, eztabaidatzeko eta elkar ulertzeko gauza izan gaitezen eskatzen digu, gure herriko bizilagunen egungo eskaerei eta hiriaren etorkizuneko erronkei erantzuteko.

Estoy convencido de que la ciudadanía eibarresa, en su pragmatismo, no espera de nosotros y nosotras peleas y discusiones que no llevan a nada. Quiere soluciones. Quiere que las cosas se hagan. Eibar requiere que seamos capaces de hablar, de debatir y de entendernos para atender las demandas actuales de nuestros vecinos y vecinas y los retos de futuro de la ciudad.

Jendeak ez du ulertzen gure artean ados ez jartzea. Ziur nago Eibarko herritarrei ez zaizkiela gustatzen noizean behin Udal honetan gure artean ditugun liskarrak.

La gente no entiende que no nos pongamos de acuerdo. Estoy convencido de que a la ciudadanía eibarresa no le gustan las broncas que de vez en cuando tenemos en este Ayuntamiento.

Eta hau guztia esaten dut, ez bakarrik tokatzen zaidalako, gutxiengoan gobernatu behar izatea guri tokatzen zaigulako, hala baita, baizik eta beti egon behar dugulako herritarrek eskatzen dutenaren mailan.

Y digo todo esto no solamente porque me toque, nos toque, gobernar en minoría, que es así, sino porque debemos estar siempre a la altura de lo que la ciudadanía demanda.

Zeharo kontziente naiz akordioak ez direla beti posible izango. Politikagintza horrelakoxea da. Baina, hala ere, uste dut hori landu egin behar dela eta horretan saiatu behar dugula. Akordio batek, nahitaez, bi jarrera edo gehiago hurbiltzea eskatzen du, eta, kasu askotan —kasu guztietan ez esateagatik— bakoitzak hasieran zuen jarreran amore ematea edo parte bati uko egitea. Kosta egiten da, baina emaitzak ematen dituen bidea da.

Soy plenamente consciente de que los acuerdos no serán siempre posibles. La política es así. Pero sin embargo, creo que es algo en lo que hay trabajar y en lo que debemos esforzarnos. Un acuerdo requiere, necesariamente, el acercamiento de dos o más posturas, y en muchos casos, por no decir todos, ceder y renunciar a una parte de las respectivas posiciones iniciales. Cuesta pero es un camino que da sus frutos.

Eta horregatik, hemendik bertatik, oposizioko alderdiei eskua ematen diet, ildo horretan elkarrekin lan egiteko eta gaur egun herriari eragiten dioten funtsezko gaiak ahalik eta adostasunik handienarekin aurrera ateratzeko.

Y por esto, desde ya, tiendo la mano a los partidos de la oposición para trabajar conjuntamente en esta línea y tratar de que los asuntos clave que afectan hoy en día a la ciudad los llevemos adelante con el máximo consenso posible. Creo

Herritarrek lan hau onartu eta eskertuko dutelakoan nago.

que la ciudadanía reconocerá y agradecerá este trabajo.

Kultura, ekonomia eta Kirol arloei, gizarte euskaltzaleari gazte-sareari eta, oro har, herritarrei laguntza eskaintzen diedan bezala, eta haien konplizitatea eskatzen diet, hiriak etorkizunean jarriko dizkigun mota guztietako erronkei aurre egiteko eta horiek gainditzeko.

De la misma forma que tiendo la mano al tejido social cultural, económico, deportivo, euskaltzale, juvenil y a la ciudadanía en general, y les pido su complicidad para hacer frente y superar los desafíos de todo tipo con los que la ciudad nos irá poniendo a prueba en el futuro.

Nire bulegoko ateak zabal-zabalik egongo dira beti, elkarrengandik gertu sentitzeko eta, une oro, euren proposamenak jasotzeko.

Las puertas de mi despacho estarán siempre abiertas de par en par para sentirnos cerca y para recibir, en cada momento, sus propuestas.

Amaitzeko esan nahi dut Eibar egunero egiten dugula guztion artean, bakoitzak bere lanean, bere eremu partikular txiki horretan, bere kalean edo auzoan, dendan, tailerrean edo tabernan, eta baita erakundeetan ere.

Para terminar quiero decir que Eibar lo hacemos posible cada día entre todos y todas, cada uno y cada una desde su trabajo, desde su pequeño ámbito particular, desde su calle o barrio, desde su tienda, su taller o bar, y también desde las instituciones.

Horregatik, espero dut nire aletxoa jartzea, beste bat gehiago izatea, kasu honetan Udalean, hain garrantzitsua den erakunde batean, eta ahal dudan neurrian, gaur hemen zaudeten gainerako guztiok bezala, etorkizuneko Eibar eraikitzen jarraitzen laguntzea,

Por eso, espero aportar mi granito de arena, ser uno más, en este caso desde una institución tan importante como es el Ayuntamiento y contribuir en la medida de mis posibilidades, al igual que el resto de los y las que estáis hoy aquí, a seguir construyendo el Eibar del

denok maite dugun Eibar hori, non bizi nahi dugun, eta gu eta gure ondoren etorriko diren belaunaldi berriak ere, herriaz beti harro egongo garen.

futuro, ese Eibar que todos y todas queremos, en el que deseamos vivir, y del que nosotros y nosotras y también las nuevas generaciones que vendrán después nos sintamos siempre orgullosos y orgullosas.

Eskerrik asko."

Muchas gracias."

Eta, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoela, eta ordu bata eta erdiak izanik, **Alkate-Udalburu jaunak** amaiera eman dio Osoko Bilkurari, nik, Idazkari Nagusi naizen honek, horren fede emanez.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las trece horas treinta minutos, **el Sr. Alcalde-Presidente** levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

JARDUNEKO ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE,

Jon Iraola Iriondo

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO

Juan Agustín Villafranca Bellido